

NATURA 2000 sarearen egoera

Natura 2000 Sarea biodibertsitatearen kontserbazio-eremuen Europako sare ekologikoa da, Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak babesteko sortua. Euskal Autonomia Erkidegoan, Natura 2000 Sareak **Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE)** batzuk eta **Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE)** batzuk biltzen ditu. Jarraian, espazio aipagarrienetako batzuk aipatuko ditugu:

Euskadin, Natura 2000 sareak babestutako 55 gune ditu, honela banaturik:

- LIC (Komunitatearen Intereseko Lekuak): 45 gune.
- ZEC (Kontserbazio Bereziko Eremuak): 45 gune
- ZEPA (Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak): 7 gune.

Gune batzuk gainjarrita daude (adibidez, eremu bat ZEC eta ZEPA izan daiteke aldi berean).

Lurraldeka banaketari dagokionez, honela banatzen dira:

- Araba: 21 gune.
- Bizkaia: 14 gune.
- Gipuzkoa: 17 gune.

Gune hauek Europako intereseko habitat eta espezieak babesten dituzte, hala nola baso atlantikoak, zohikaztegiak(turbera), izokinen ibaiak, edo europar bisoia eta ugatza bezalako espezieak.

Goazen aletzera orain arte Natura 2000 Sarean, EAEn egindako lana goraipatzen dituzten berriak, ofizialak zein estraofizialak:

Aurrena IHOBE, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-jarduketarako sozietate publikoaren txosten hau begiratu dugu: [Natura 2000 Sarearen ebaluazio ekonomikoa Euskadin. 2010-2021 aldiko metodologia eta emaitzak](#) eta zera dio laburpen gisa izenburuan:

“Euskadik **203.372.197 euro** inbertitu zituen guztira **2010 eta 2021** urteen artean, hau da 17milioi urteko Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioetan (17.000.000/55 Natur Gune=**310.000 euro urtero**, beraz).

Parentesi bat egingo dugu konparaketa zital bat erakusteko: **2025erako GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BASOTIK FUNDAZIOAK 2 MILIOI EURO EMAN DIZKIO BERE BURUARI, Gipuzkoako baso/landaketen inguruan aritzeko soilik**. Desoreka lotsagarria eta nabaria, ezta?

Jarraitzen dugu IHOBEren txostenarekin: horrek **9 euroko itzulkina ekarri zuen ekosistemetako zerbitzuetan inbertitutako euro bakoitzeko**, hala nola elikagaien

DENON BASOA 18

ekoizpena, ura eta energia, klimaren kontrola, uraren arazketa, polinizazioa, osasunaren hobekuntza, aisialdia eta naturaren gozamena.

Hala, Euskadi naturaguneen kontserbazioan eta mantentze-lanetan gehien inbertitzen duen Europako lurraldeetako bat da; batez beste, 98,6 euro inbertitzen dira urtean hektareako, eta 63,2 euro hektareako, batez beste, Europar Batasunean.”

Triunfalismoa oso hedatuta dago Basogintzaz arduratzen den gure Administrazioetan, ematen dituen norabide bakarreko urratsak autojustifikatzeko, hau da, monolaborantzarekin jarraitzeko.

Beste artikulua bat, kasu honetan NOTICIAS DE ALAVA egunkariakoa : [Una cuarta parte del territorio de Euskadi está protegida](#) . Zera dio, besteak beste:

“Lurraldearen laurdena babestuta dago Euskadin. Horrela ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzak 2022an aurkeztu zuen Ingurumen Profilean, Biodibertsitatearen Munduko Egunaren harira. Biodibertsitatearen profil horrek jasotzen dituen datuen arabera, lurraldearen % 24,2 babestuta dago, hau da, 175.330 hektarea. Datu horiekin, Eusko Jaurlaritzatik azaldu dutenez, Euskadi "Biodibertsitateari buruzko EBren 2030erako Estrategiak markatutako helburura hurbiltzen ari da".

Jarrai dezagun JULEN REKONDOK, 2016an, EL DIARIO.ES egunkarian idatzitako [La Red Natura y su biodiversidad en Euskadi](#)

Natura 2000 Sareak Euskadiko biodibertsitatea kontserbatzeko egin dituen lanei arreta gehiago jarritz, garrantzitsua da azpimarratzea interes komunitarioko espezieak kontserbatzeko Life-Natura proiektuak egin direla, besteak beste, bisoi europarrarena eta Bonelliren arranoarena Araban, habitatena, hala nola Urdaibaiko dunen leheneratzea eta Natura 2000 guneena, Txingudikoena eta Aiako Harriarena Gipuzkoan.

Txapeldunak gara letra handietan baina letra txikiari begiratzen badiogu “urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau” Goazen beraz, ikuspegi kritikoa lantzerantz segidan hainbat espezialisten eskutik.

Artikulu hau BERRIA egunkariakoa da eta 2024 ekainean kaleratu zuten. Bertan, Gipuzkoako Parke naturaletako patronatuetan dauden natur taldeetako ordezkariekin bildu da Aitziber Sarobe, Pagoetako natur parkeko parketxean.

Artikuluaren izenburua: [Natur parkeak: etekina edo kontserbazioa?](#)

Hauek dira parte-hartzaileak: Aitziber Sarobe Egitaren, Arkamurka Natur taldeko eta **Pagoeta** Parke Naturaleko patronatuko kidea, Hilario Manzanedo Gabilondo, Kukubaso elkarteak eta **Aizkorri-Aratzeko** patronatuko kidea, Edurne Huesa Otegi, Landarlan

DENON BASOA 18

elkarteko eta **Aralar** Parkeko patronatuko kidea eta Karlos Murua Roma, Eguzki taldeko eta **Aiako Harriko** patronatuko kidea.


Parkeak garrantzi bereziko leku izendatu zituzten 2009. urtean, eta, 2013an, kontserbazio bereziko guneen izendapena jaso zuten. «Izendapen hori jaso ondoren, **kontserbaziorako kudeaketa eta aurrekontu plan bat** aurkeztu behar zuen aldundiak sei urteko epean. Hau da, 2019rako, beranduenez. Baina **oraindik zain gaude**» Izendapenak ematea Eusko Jaurlaritzari dagokio, baina Gipuzkoan Aldundiaren ardura da parkeen kudeaketa. **2013an**, ordea, kontserbazio bereziko guneen izendapena jasotzearekin batera, Gipuzkoako parke naturalak **Europako Natura 2000 naturagune babestuen sarean sartu ziren**, eta horrek Europak finkatzen zuen planari jarraitza behartu zituen. «Hor **instituzioen arteko talka bat egon zen**. Aldundiak aldarrikatzen zuen Natur Baliabideen Kudeaketarako Planari jarraitu nahi ziola, Europatik zetorren plan berria aplikatu beharrean. Talka hori izan da urteetan natur kontserbazioaren aldeko politikak egitea atzeratu duena», dio Sarobek. **2022ko natura ondarea kontserbatzeari buruzko lege berriak, ordea, bi dokumentu horiek «uztartzea» ekarri du**. Sarobek azpimarratu du orain arte egon den aldundien kudeaketa plana **«zerbitzu ekosistemikoei etekina ateratzera» bideratuta dagoela, eta ez biodibertsitatea kontserbatzera**. «Kudeaketa jarduera ekonomikoetara bideratzen da: abeltzaintza, basogintza zein erabilera publikora»Eskuarte dituzte Parke bakoitzerako aldundiaren aurrekontuak. **«Aurrekontua guztira 355.000 eurokoa da, eta ia guztia erabili dute ehizarako gunek jartzeko, matarrasak egiteko, sastrakak mozteko eta abeltzaintzarako. Habitata hobetzeko, aurrekontu osotik 3.500 euro soilik erabiltzen dituzte; hau da, %1»**Aurrekontuak ez dira erabiltzen Europatik jarritako kontserbazio helburuak betetzeko: Pagoetan hiru urtean sastrakadien %80 moztu zituzten, bigantxategi baterako eta beste abeltzain batzuen jarduera bermatzeko. **«Sastrakadi horretan zegoen Gipuzkoako mirotz zuriaren habia bakarrenetarikoa, eta, jakinaren gainean zeuden arren, moztu eta mirotza desagertu egin zen**. Beti irabazten du jarduera produktiboak». **Ikerketarik ez**. «Ez da ikertzen». Hori da solaskideek gehien aipatu duten esaldietako bat. **«Parkeak izendatu zirenetik 30 urte pasatu dira, eta oraindik ez da ebaluazio bat egin parkeko fauna eta flora nola dagoen ikertzeko**. Ikerketara bideratutako aurrekonturik ez dago».

Hona hemen bertatik bertara egoera ezagutzen duten lau eragileen irakurketa gordina. Beraz, hasierako tono triunfalistarekin ezin gara geratu, inolaz ere, itxurakeria berdearen erakusgarri baita.Gure Naturguneeen kontserbazio irizpideek, hedadurak, kontserbazioak eta gizarteratzeak HITZAK EZ, EKINTZAK BEHAR DITU.

BASO BIZIEN ALDE, AUZOLANEAN DENON BASOARI BIDEA EMA

Informazio gehigarria:

- [Infracciones en la Red Natura 2000](#)
- [Red Natura 2000 y sus mitos](#)
- [Preocupación en el Pirineo por la Red Natura 2000 que afecta al 50% de su territorio](#)
- [San Juan de Gaztelugatxe es la zona de la Red Natura 2000 con mayor inversión](#)
- [Natura 2000 sarea. Euskadiko altxor naturalak by Ingurumena EJGV - Issuu](#)



Euskadiko 55 altxor naturalak Las 55 joyas de la naturaleza de Euskadi

KDE / ZEC		
1	ES2100002	Alzori-Arrez
2	ES2100001	Avallir
3	ES2100004	Adama-Gallo-Arizarola
4	ES2100016	Alto Huma
5	ES2100005	Alto Oita / Oita Garaia
6	ES2100001	Arnalón
7	ES2100001	Arno
8	ES2100004	Donas de Asando / Asandoko Guruk
9	ES2100001	Embalses del sistema del Zadorra / Zadorren sistemako urtegiak
10	ES2100008	Enchentes caribéricos de Urdeibar / Urdeibarko artadi lantaurarrak
11	ES2100002	Enliza
12	ES2100007	García-Santa Barbara
13	ES2100009	Gorbeia
14	ES2100008	Hernio-Gauame
15	ES2100003	Izarratiz
16	ES2100009	Izurrutza
17	ES2100017	Izurrutza
18	ES2100007	Lago de Cauce de Yuso y Arno / Arno-Cauce de Yuso almirza
19	ES2100021	Lagunas de Laguarda / Guardiako antarrak
20	ES2100015	Montes altos de Vitoria / Gasteizko mendi garaiak
21	ES2100016	Montes de Aldia / Aldiako mendiak
22	ES2100002	Ordarte
23	ES2100006	Pageta
24	ES2100006	Red fluvial de Urdeibar / Urdeibarko bal sarea
25	ES2100018	Ria del Barbadán / Barbadán ibararen itsasadarra
26	ES2100010	Ria del Oña / Oña ibararen itsasadarra
27	ES2100004	Rio del Urola / Urola ibararen itsasadarra
28	ES2100023	Rio Arakil / Arakil ibarra
29	ES2100012	Rio Araxes / Araxes ibarra
30	ES2100011	Rio Ardoi / Ardoi ibarra
31	ES2100006	Rio Bala / Bala ibarra
32	ES2100017	Rio Barandua / Barandua ibarra
33	ES2100008	Rio Ebro / Ebro ibarra
34	ES2100020	Rio Ega-Berron / Ega-Berron ibarra
35	ES2100012	Rio Ilundia (Ayuda) / Ilundia ibarra
36	ES2100010	Rio Lea / Lea ibarra
37	ES2100003	Rio Leizorren / Leizorren ibarra
38	ES2100005	Rio Onedillo-Tunecillo / Onedillo-Tunecillo ibarra
39	ES2100015	Rio Urumea / Urumea ibarra
40	ES2100010	Rio Zadorra / Zadorra ibarra
41	ES2100013	Robledales de la laguna de Alaves / Alavesko lanturaketa harri-irak
42	ES2100003	Robledales de la laguna de Alaves / Alavesko lanturaketa harri-irak
43	ES2100005	San Juan de Garretaga / Garretaga
44	ES2100018	Tongue-Bidassoa
45	ES2100014	Urola
46	ES2100009	Urola
47	ES2100007	Zonas litorales y marismas de Urdabai / Urdabarko itsasertz eta padura
48	ES0000490	ES0000490
49	ES0000144	ES0000144
50	ES0000244	ES0000244
51	ES0000243	ES0000243
52	ES2100019	Idi
53	ES2100014	Sallana
54	ES2100018	Sierres meridionales de Álava / Araba ibarraldeko mendilerroak
55	ES2100024	Volcadero-Solotín-Sierra de Arcena / Arcena mendilerroa